

Edorta Jimenez

# Azeria eta Lehoia

Joseba Jaka V. Literatur Bekako sariduna

**ekar**  
fundazioa



**Azala eta bildumaren diseinua:** Esteban Montorio

**Argitaratzea:**

Editorial Txalaparta E.M.

Navaz y Vides 1-2

78. Posta-kutxa

31300 Tafalla

NAFARROA

Tel. 948 70 39 34

Faxa 948 70 40 72

txalaparta@txalaparta.com

www.txalaparta.com

**Lehenengo edizioa**

Tafalla, 2007ko azaroa

**Copyright**

© Edorta Jimenezek

© Elkar fundazioak

Argitaraldi honena:

© Elkar fundazioak

© Txalapartak

**Diseinu grafikoa**

Monti

**Inprimaketa**

RGM

**ISBN**

978-84-8136-499-6

**Lege gordailua**

BI-3.343-07



EZPAINETAN BESTE HARAGI BATEN UKITUA nabaritu uste izan nuen, aho barrurantz fermuki bezain leunkiro egin guran nabaritu ere. Artean lo ala esna nengoen ez nekielarik. Ezin esan, bada, ez ote nengoen ametsetan. Senti nezakeen bakarra haragi huraxe zen, ahoan, egarriaren egarritz ezpaina ezpainari josita legez neukan ahoan leku egiteko ahaleaginean. Egin egin zezan utzi nion.

Haragi trinkoa zen. Mardoa. Beroa. Itzarrik ala lo egon, ez nukeen amets moduko hartatik irten nahi izango. Ezergatik ere. Haatik, haragi hark, hark mihian ukitu ninduenean, ene egarri eta guzti, listua egin zitzaidan ahoan, nik nire aldetik ezertan nekatu behar ukan barik, hartan usaturik banengo legez, ala egia. Hala da ze, ezpainen lodienaz kosk eta kosk busti nuen haietara hala eskaintzen zitzaidana. Azturaz ez bazen, sen hutsez. Eta bustia bustiaren truk, isuri gozo batek bete zidan halako batean ahoa.

—Esnea! Edoski —ziostan barruak—; edan, bai; gozoa duk-eta, edan; hiretzat duk, edan!

Eta halaxe egin nuen. Edan.

Edan, tantarik tanta, isuri mehean zetorkidan esnea. Edan, titia ematen zidan bularraren taupadak sentituz.

Titia ezagutu uste izan bainuen, eta nire ustean betebetea igarri. Ez baitzen besterik hala zebilkidana, norbaiten titi emea baino.

Edan egin nuen, bada, esnea, isuriarekin batera zetorkidan arnasaren pauso berean barrura irentsiz. Edan, ametsetan nengoelakoan. Edan, larruazalean han eta hemen sentitzen nuen erredura ahantzarazten laguntzen zidalako, eta gozoa zelako. Esnea.

Eta hara. Isuria nire ustekabekoenean eten zen. Negarrari eman niolakoan nago, ixi! agintzen zidan ahots bat aditu uste izan bainuen.

—Shhh! —ziostala begitandu zitzaidan—. Shhh!

Ametsetan ala eldarnioan nengoen egundaino jakite-rik izan ez dudarik, pittin baten ostean berriro sentitu nuen lehenagoko haragi ukitua. Nire ezpaineak atzera preso hartu nahi izan zuten euretan beste behin laztantzen ninduen. Ezin baina. Nago orduan esku batek kokotsetik hartu ninduela, ezpainak egokiro zabal nitzan, eta beste esku batek mihiaren gainera huraxe zidala ekarri. Esan nahi da, berriro sentitu nuela han barruan haragia. Haragi sendoa. Mardoa. Beroa. Titiburua.

Ez zegoen bustirik, oster. Hala eta ere, laster umeldu nuen listuz, pa eta ma, ma eta pa, eta gero han etorri zitzaidan, epel, isurian, dudarik barik esnea zena. Burua talaia gozoren bateko belartzan pausatu izan banu moduan sentitu nintzen. Baketan.

Lo nengoen, itzarturik nintzen, eldarnioak jo ote ninduen, ez nekike esaten. Gogoan dut, lauso baina gogoan,

laketasun hartan nintzelarik beste era bateko lo batek hartu ninduela. Horretatik itzuli nintzenean etzanik nengoen, eta norbait nuen alboan, neuri begira.

Erdi ilunetan, alboan nuenari adatsa baino ez nion ikusten ahal. Bai adats ederra. Hartan, nondik zetorkidan ez nekien irudi bat sortu zitzaidan. Pagadiaren barrura eguzkiaren printzak zelan jausten diren, zirimirian, perla txikiak irudi, halaxe zebilkion ile artean argia. Ez zen miragarria. Begi ertzaz ohartu nintzenez, jagole nuen haren buruaren atzean leiho estua zegoen. Handixe zetorkion argia adats artera. Eta kriseiluren bat ere bazen nonbait bizturik. Olio errearen usaina zebilen-eta airean. Begiak legezt, nire sudurzuloak, behintzat, euren lekuan ziren. Horiak eta begiak ez ziren aski, oster, non nintzen jabetu nendin.

Jakin guran nengoen, eta jaiki nahian. Nire asmoa igarrita, nor izan zitekeen ez nekien hark bekokia eskuaz beherantz sakatuz agindu zidan, ezetz, ez jaikitzeke, ego-teko hantxe. Eta hobeto. Zeren eta jaikitzeke zirkin ahul hartan gerrialdeko azala erauzi izan balidate baino min erreagoa sentitu bainuen.

—Ai ene! —hots egin nuen.

Orduan berak burua bihurtu zuen pittin bat, ene ez-painetaraino makurtu zen eta putz egin zidan, emeki. Putz, aurpegian lehenik, eta beherago gero, bularrean han eta hemen putz, suren bat amatatu guran balebil legezt. Putz eta putz. Eta sua nuen, bai, nahinon. Esku batez aurpegia bilatu nion.

Aurpegia baino lehen titiburu bat topatu nuen. Bus-tia. Hantxe geratu zitzaidan eskua. Titiburuari eta bula-

rrari atxikita. Harik eta, hark, atzez eginez, eskua non eutsi ez nuela utzi zidan arte. Istant batez airean eskegita geratu zitzaidan. Eskua.

Emakumeak kriseilua hartu zuen, eta horrexetan ikusi ahal izan nuenez, jesarrita zegoen, ni etzanda nengoena baino bizpahiru arrabete gorago.

Zeren gainean zegoen jesarrita, hori ezin nuen igarri, krabelin kolorea zuen oihal batek estaltzen baitzuen kadirarena egiten ziona. Kriseiluak balantza egin zuen, eta nire begi ertzak harekin batera dantza. Halaxe igarri nion gerrialdea, halaxe bizkar arteza, adats luzea lepoan eta, hara, bularrak ere. Begiak hortxe lotu zitzaizkidan, kateaturik. Titiburuak gorontzaren goi ertzean agirian zeuzkan. Sendo eta luze, eta beren luzean tenkaturik. Irri herabea egin zuen. Begiak haixetan josirik nituela oharturik, arean.

Tarte batez begiradari atxikirik geratu nintzaion, berak niri so egiten zidan jakingura bertsuaz. Begietan zilarren dirdira zuen, eta haltzak neguan ohi duen biluztasun gorrikara adatsean. Titiburuetan bezalaxe.

—Mailukiak! —otu zitzaidan.

Hankartea hantu zitzaidan. Eskua, ez nire mende, bera bere buruaren jabe baino, haraxe jausi zen.

Dena ikusi ez ikusi batean izan zen. Begiek kliska egiteko behar duten tartearen halakoan. Keinu leun batez gerruntzea gora igo zuen, eta halaxe estali mailukiak. Hala eta ere, gerruntzearen goiko ertza baino gorago eta hala ere preso, titi mamiak hanturik lotu zitzaizkion. Hertsirik, beren betetasunean beteago ziruditen. Titiek. Burua hantxe uzteko gogoa egin zitzaidan. Ezin baina.

Titiburuak estaltzeko keinu haren ostean putz egin zion kriseiluari, gerruntzea igotzeko erabili zuen esku berbera betazalean pausatu zidan aldi berean. Argia iraungitzetik betazalak biltzeko igaro zen liparrean, kanpoan ilun zela ohartu nintzen. Amore eman nuen. Berriz itxi nituen begiak.

Gero etorri ziren laztanetan, oster, ukenduz igurtzi nahi ote ninduen otu zitzaidan. Haren erak ene gorputz minberak nonbaitetik ezagun zituen laztantzeko erak ziren. Holako erak nondik edo zertatik nituen ezagun, ez nekikeen esaten. Loak duda horrexetan hartu ninduen, leun.

Egiatan-edo itzartu nintzenean argitasun betean zegoen leihoa. Handik barna goitik behera artez sartzen zen argi-zirrintak labanaren ahoa zirudien, leku itxi hartan zauri eginez etorria. Eta zauritik odola, argitasun hark lekuaz jabetzen utzi ninduen. Lau horma, leihotxo, atea, abereekin erabiltzen den azpigarriaren antzeko galtzua edo lastoa zabaldurik behearen gainean, guk gure amaren kumeok geure beharrak egiteko izaten diren kaiku taxuko ontzia, besterik ez nuen antzeman, estaltzen ninduen oihalaz ni bertan etzanda nindukan ohetxoaz landa. Ohol batzuk elkarri josirik, horixe zen harturik ninduen ohan-tzea, eta hortixe haren gogorra. Haatik, ez zen haren gogorra jaikiarazi ninduen. Ezta jakingura ere. Gerrialdea erretzen nuela sentitzen nuen. Jaiki beharra neukan. Norako baina, ez baldin bazen nire barnean irten guran deika neukan gernua libratzeko. Non nintzen edo non nengoen ez nekien eta, zelan jakin zer egin, nora jo, nori dei egin hel!, hona!, niri!

—Jaiki! Eguerdia duk —esan nion neure buruari.

Eguerdia! Munduaz zer nekien, harritu egin nintzen.

Zutuntzeko ahaleaginean errearen minaz ahantzarazi zidan esneaz oroitu nintzen, eta emakumeaz, hurrenez hurren. Artean ere ahoan lodi zen gozotasun bat banuen-eta, emakumea benetakoa bide zen.

Lotsatu egin nintzelakoan nago. Eta egin nintzelakoan diot, ez baitakit lotsarena hura dena gogoratzean datorkidan sentimendua ez ote den. Nolanahi ere, ohantzeko izararen azpian erabat biluzik egona nintzen, eta halaxe nengoen zutitzean ere. Oihal hura barik, ostera.

Larruazala haztatu nuen, tentuz, ukitzean tarteka min ematen zidan-eta. Soina igurtzirik neukan. Olioaz. Edo ukenduz, arean. Zutitzeko ahaleaginean aurrera egin nuelarik, larruazaleko labeak goritasuna galtzen zihoazela igarri nuen. Ez, den-dena ez bide zen eldarnioa edo ametsa izan. Norbait ibilia zen nire gorputzean. Eta ibilia zena nor izan zen, otu zitzaidan hura ez zela nire soinean behin bakarrik hala ibilia, askotan baino. Hura lotsa.

Errearen mina lotsa gorriaren suaz erdi amataturik, kaiku taxuko ontziari eman nion nire barruaren isuria, bera ere gori-gori. Ordura artekoan zelan moldatu ote nintzen otu zitzaidan, eta berriro lotsatu nintzen. Ingurura begiratu nuen. Arropatzat oheko azala jantzi beharko ote nuen, zer bestela. Bada, eskuetan hartu nuen eta, hara!, bustirik zegoen. Bustiari zerion usaina ez zen izerdiarena, osterara, harako nire beste isuri harena baino, hau ere orain diot. Titiburuak ikusi ez ikusi hartan nire barnetik kanpora egin hark, eta ohartu ez ni. Lotsa gorriago bilakatu zitzaidan, oi, emakumea jesarrita egondako oihala ikusi nuenean.



—Hobe hori.

Ni baitakoarekin berbetan, krabelin koloreko oihala bere lekutik kendu nuen. Azpian zegoena agerian geratu zen. Halako kutxa ederrik!

Nirea ote zen geratu nintzen. Begira-begira. Ezin jakin. «Norena da hau?» edo «Norena da beste hori?» itaundurik, batek «Neurea!» erantzunez gero delako horri Eta hi, nor haiz? itaunduko geniokeen era berean, kutxa nirea bai nirea ez erabaki aurretik ni nor nintzen jakin behar izango nukeenez gero. Krabelin koloreko oihala soinarenguruan bildu nuen, eta leihora hurreratu. Kutxa bertan baketan utzita, hartan buruari ere bake emanez. Leihoa zen nire ardura.

Balezta, alkabuz edo uztaiaren muturra sartzeko bezain zabala zen. Gudarako taxutua, nonbait, estu ez ezik horman txit goi irekia ere bazen eta. Esan nahi da, nahiz baleztari, nahiz alkabuzari, nahiz arkulari, oinen azpian zerbait behar zela ipini hara eroso iristeko. Jakina, goitik behera jaurtitzen badira azkonak edo geziak, hobeto jaurtitzailearentzat. Eta alkabuzak berak ere tiro egin halaxe egiten badu, hainbat hobeto alkabuzariarentzat. Ez nintzen halakoetakoa, eta ez neukan ezer oinen azpirako, kutxa izan ezik. Ez nintzen hura mugitzera ausartu, haatik. Oin puntetan, ozta-ozta iritsi ahal nintzen kokotsa zulo haren behealdean pausatzen. Ortzia baino ezin nuen ikusi. Berunaren antza zuen.

Itsas txorien txilioak aditu nituen, eta haiek mokoe-tan ekarrita legez etorri zitzaidan kresalaren usaina, eza-gun-ezagun egin zitzaidana. Etxean ote nengoen otu zitzaidan. Ez zidan luzaz iraun nire usteak. Kanpoan

ahotsak aditu nituen. Ezer endelegatu ez nuen lengoaia edo mintzaira batean ziharduten.

Atera jo nuen, ea argitara irteterik baneukan. Kanpotik zegoen itxita, itxura zenez, barruko aldean ez baitzuen maratilarik. Ezta sarrailarik ere.

—*Sir!, Seigneur!* —halaxe zioetan ahots bat aditu nuen handik lasterrera. Gero oster, atea trabatzen bide zuen katearen hotsa aditu zen, eta bere hartan kateari loturiko taketarena edo. Norbait atea zabaltzekotan zen.

Ateko trabuaren hotsak eten egin ziren, eta jendeek, nortzuk ere ziren, berriz egin zuten aldarri eta oihi, oihi eta aldarri, eta tarteka ferren hots urduriak aditu nituen, eta gurpilen karrankak iritsi zitzaizkidan gero, eta han kanpoan dena hotsa eta ardaila zela begitandu zitzaidan azkenean. Segur zen errietan zihardutela. Bila zetozkidala, orduantxe jabetu nintzen. Soina jantzirik zidan oihalaria begiratu nion lehenik, eta kutxari gero. Kanpoko zaraten gainetik ateari azken gakoaren zarata aditu nuen berriro. Eta harexen gainetik etorri zitzaidan atzera aldarria.

—*Sir!, Seigneur!*

Bigarrenez aditu nuen aldarri bera, eta hala aditzean, *Sir!, Seigneur!* aldarria lehenago entzunda nengoen ziurtasuna osoa izan nuen. Non baina.

Aztoraturik, kutxari berriz erreparatu nion. Nire itau-nentzako erantzuna han ote zegoen, atetik aldendu nintzen, hari tapakia gora altxatzera.

Oihala bertan behera utzita, han barruan agiri-agirian ziren galtzak jantzi nituen, ziztuan. Bestela, han jaka miragarriro eder bat ere bazen-eta, harexek jantzi zidan gerritik gorakoa. Janzkiok, nireak ez baldin baziren, nire

taxuko beste batenak izan beharko. Norenak? Han barruan zeuden beste gauzen artean arin batean begiratuta, pergamuak begiztatu nituen. Hantxe zegokeen erantzuna. Haatik, astirik ez haietan begiratzen ahalegintzeko. Ezta hutsik nituen oinetarako zer edo zeren bila hasteko ere.

Ez dut ukatuko. Izaturik nengoen.

«*Sir!*, *Seigneur!*» aldarria hirugarrenez aditu nuelarik, argi egin zitzaidan boz hura bera lehenago non aditua nuen. Eta gogora etorri zitzaidan nire izena ere. Eta gogoratu izan ez balitzait baino mingarriagoa izan zen. Izenarekin batera nire minen gainera iraganeko beste min baten akordua etorri zitzaidalako, hain zuzen. Eta min haren akorduaren harira, beste hainbat gomuta.



MINAREN GOMUTA BERA ERE oinazerako bide izan ohi da. Ordukoa nik neuk egundo pairatu bakoa zen-eta, gaur da eguna haren gogoratzeak min ematen segitzen didana. Aladurazkoa mina zen. Min latza. Eta hain ekinkorra ze, ziur hura egin zitzaidanetik ordura artekoan buruko kordarik barik egona nintzena.

Korda barik, esan nahi baita, ni baitakoaren sakonean zentzumena itzalirik.

Zeren eta buruko kordak galdurik izana ez banintz, orduantxe galduko baintuzkeen. Nire onera etortzean. Zelan eutsi, bestela. Eta hobe hala gal banitza. Irudi du, berriz, zerbait galtzetik zerbait hori berriz galtzera tarte-txo bat igaro behar izaten dela beti. Zelan lemak ababorretik istriborrera ziztuan aldatu eraginda ere gilak astiro egiten duen istriborretik ababorrera zuzendu ontzia, halaxe. Igaro zen tarte bat, bada, eta ez nintzen nire onetik aldendu. Hura tamala. Bertan hil nendin desiratu nuen.

Hil, bai, edo funditu. Non ere nengoen, nire aladura handiko minen berri baino ez bainekien. Oinazeen ontzi nintzen, besterik ez. Ni neu ez nintzen besteren batek zeki-

keen, arean, noiztik nengoen hala etzanda, ahoz behera, bularrean barrura arnasa ekarri ezinik kasik, bizkarrezurraren inguruan egundoko pisua neukalarik. Neure buruari zerbait esan nahi izan nion, eta ezin. Ez nuen nire grazia gogoan.

Eldarnio aldietan nahiz loaren barruko ametsetan gu baitan antza denez erne-erne izaten dugun beste horrek –aditurik dut *automata* deritzotela jakintsuek inoren eskuak erabili barik dabiltzan makinei, hala nola gerrarako asmatu diren batzuei; neuk ikusiak horietakoak–, esturetan eta larrialdietan katuak bezain malgu eta zakurraren besteko amorruz jauzi egin eragiten digun horrexek, gora altxatzeko agindua eman zidan.

—Jaiki hadi... hi! —ni baitako besteak ez zuen niretzat grazia edo izen zehatzik esaten jakin.

—Hi? Ni! —burua gora altxatzeko zirkina egin nuen.

Ez nintzen hartarako asmotik baino harago joan.

Hantxe geldi lotu nintzen, atezuan. Beste inoren baten minezko uhuriek begiak zabalarazi zizkidaten, betazalak urratzeraino kasik. Ez neukan ezer ikusterik, aitzitik. Ilun baitzegoen, gaua hantxe zetorren eta.

Uhurien oihartzuna airean barna errauts galdu bihurtu zeneko norbaiten arnasaldia iritzi niona antzeman nuen, lehenengoz. Hari adiago, ez zitzaidan sinistekoa egin ezein gizakumek bere hatsaz halako hotsik sor zezakeenik. Hala da ze, izutu egin nintzen, inguruan, gertu-gertuan, piztiaren bat ez ote nuen. Gizakumea ala piztia, arnasakeran igarri ahal zitzaion tamaina.

Nigana oldartzekotan zelakoan izan nintzen. Haatik, sekulakoa iritzi nion tarte baten ostean erasorik izan ez zela-eta, halako piztia ikusezin baten susmoak areago izu-

tu ninduen. Orduan trumoi hotsaren antzekoa aditu nuen. Istant bat behar izan nuen hura kanoikadaren batek sortua izan zela endelegatzeko.

—Infernuan hago, Sebastian! —esan zidan ni baitan zereginean ziharduenak.

Non nengoen-eta, ezin gogora ekarri. Ezta ardura ere artean. Han nonbait geldi-geldi herioaren arnasetan zetzana, piztia edo zena zelakoa, ez zen joan zegoena baino urrunago, ala kalte!, ezta urreago nigana etorri ere, ala mesede! Hats behartuan segitu zuen. Burua harexentzat eta giltzurrunen aldeko larruazalean nituen ilintien ziztadentzat, beste ezertarako ez nuen. Sudurzuloak osteraren onean nituen ze, kanoikadaren hotsa aireak eroan zuenean halako usain bat aditu nuen, umetako irudi bat ekarri zidana.

Neure burua ikusi nuen, emakumezko baten alboan. Ama! Hura galdaratzar batean bokatarako koipeak-eta egosten ari zen bitartean, negar betean nengoen ni. Akordu horretan oina pausaturik, neure buruak gomuten bi-dea hartu zuen.

Akorduan, bokata egiteko harria ikusi nuen, ibaiertz batean. Harago, itsasoa ikusten nuen, eta tartean berriz ibaia-  
ren etorriak sortua zuen hareatza. Ama neritzonak han ziharduen, beste andreekin batera suari eraginez eta, tartekata-  
tarteka, harrian ziren oihalak uretatik atera, igurtzi, jo, berri-  
ro uretan sartu, eragin, bihurtu, atera, jo, eta sutako galdara-  
koari berriro eragin, halaxe. Ahalegin betean, eta kantuan.

Agirreraren arpoia, bai arpoi ederra! Kantuak amorrua biziagotzen zidan, eta negarraren uholdea areagotu. Ezta amorrua malkoez amatu gura banu ere.

Zergatik ere zen negarrez nengoela, beste andreek barre egiten zidaten, gogora ezin ekarri nituen ziriak esanez kantuarien harira. Harik eta halako batean amak burua bere bularretara ekarri zidan arte. Hanturik ziren amaren titiak, eta esne minduaren usaina zerion han. Hantxe estutu ninduen, lo lotu nendin. Egurren keak betetzen ninduela, halaxe lotu nintzen. Hortxe amaitu zitzaizkidan gomutak.

Ohartzen naiz. Artean luze ez zela izan bide zen gure arreba hilik jaioarena. Doi urtebete eta beste zerbait denbora nuela jaio baitzen hura. Azken batean haragi odolduaz ez bide zen hura lurpean sartzeko baino erditu. Arrebaren gorpua, kasik-kasik amaren sabeletik hara. Hobira.

Hain umerik ni, ezin jakin nezakeen haren berri. Bada, denbora igarota, nago aitarengatik ote nengoen negarrez. Aldi harexetan hil baitzen. Baina, nondik nora endelega nezakeen, edo jakin nik, hain ume, aita hilik zela. Hala da ze, litekeena da ni beste zerbaitengatik egotea negarrez, haurraren begiek ez baitute behar izaten hango errekei ezerk edo inork antepara zabaltzerik. Berez hasten da umea negarrez.

Diodan moduan, akordu eta gomuten soka hantxe eten zitzaidan. Eta ez nengoen amaren altzoan. Begiak minezko malkoez bustirik nabaritu nituen arren. Egur errearen kea nuen inguruan, akorduetan amaren altzoan loak hartu ninduenean legez. Hortik, arean, gomuta. Eta hortixe nire malkoak, dudarik ez.

Esku bat mugitu ahal izan nuen, malkoak eragozteko, baina hartan berriro su-mina sentitu nuen gerrialdean. Haraxe eraman gura izan nuen eskua. Ezin baina. Gerriaren gainean ohol zati biribil bat nuen, pisu astun eginda.



Ahoz behera, bularrez eusten-eusten eta egur zati hura gainetik kendu ezinean gerrialdeko ilintien minak erotu beharrean nindukalarik, ingurura begiratu nuen. Ontzitar bateko bizkar gainean nengoena, hori, behintzat, igarri nuen. Gerrialdean pisu egiten preso nindukana masta-zatia zela, hori ere instant harexetan jakin nuen. Ontziak ez zitzaizkidan arrotz. Mundua mundu bihurtzen ari zitzaidan. Alferrik, hain segur.

—Hireak egin dik! Mastatzarrak hauka preso.

Bularraren azpian neukan ontziaren mugimenduan taupadak nabaritu nituen.

—Ontzia duk hi hagoan leku hau, Sebastian —esan zidan ni baitakoak, automatak, hil aurretik munduaz hobeto jabe nendin edo.

Lehenagoko kanoikadaren ostean beste bat etorri zen, eta gero beste bat, eta halaxe, hurrengo kanoikadak erreskadan etorri ziren, eztrandetako suek zeruan argizko zuloak irekitzen zituztelarik. Tartetxo bat igarota suen euren osteko keek berriz estaltzen zituzten zuloak ziren. Dena dela, halakoxe baten argitara ikusi ahal izan nuen zaldia. Horixe baitzen herioren arnasetan nabaritu uste izan nuena. Zaldia.

Larru beltza errautsez estalia, ene alboan jausita zetzan, hura ere preso nindukan masta-zatiak azpian harra-patuta. Egurak sabelaldearen gainean pisu egiten zion-eta, hara zergatik haren arnasaren estua. Nolanahi ere, arnaskera baino durduzagarriagoa egin zitzaidana zera izan zen, buruaren inguruan paraturik zituela halakoei zamalkatzeko jantzi behar zitzaizkien uhalak, eta uhalok gerlariaren antza ematen ziotela. Ala egia, zaldiak erdi piztia eta erdi gizakumea zirudien.

—Gora, jaiki, altxa! —boza behartu barik esan nion, nire aztorameneren gainetik.

Erantzun egin zidalakoan nago, irrintzia izan gura zukeen bafada ahul bat askatu baitzuen, lepoa bihurtuz eta nire aldera begiraturik, dena aldi berean. Begiak eurak iretargi bete eginda zituen, laru-laru, baina odol lats mehez gorriturik. Biok geunden preso.

Urrikaldu egin nintzaion zaldiari. Izena gogora ekarzerik ez neukan ontziaren masta, arean haren habe nagusia zena, gure gainera jausia zen, halako suertez non, zaldia ni baino handiago zenez, berak baitzeukan harturik egurtzarraren pisuaren handiena. Bere sabel hanpatuaren trabesean hain zuzen. Haren gainera barik masta ontziaren bizkar gaineraino jausi izan balitz, eta ni osorik azpian harrapatu, zerutik datorren harriak azpian harrapatu duen igela legez geratuko nintzatekeen; azalez eta itxuraz osorik baina barruak leherturik. Kakoan esekitako atorra bezain zapal eta artez. Zaldiaren izenaz gainera haren beste zeozertaz akordatzeko ahalegina egin nuen arren, gomutarik ez.

Gerraren batean nintzenik zalantzarik ez, oster. Suzko azken ziri batek argitu zuen beste instant batez ortzia. Haren ostean ez zen besterik izan. Ez eta kanoikadarik ere. Ilun eta isilik lotu zen gaua, tamalez, harrezkero belarrietan zulo berriak egin izan balizkidate moduan izan zenez gero.

Aienak eta enebadak, «niri!» esaten zuten bozak, «hel!, hel!, hel!» ari ziren aldarriak, ez zen besterik aditu.

Eskertuko nukeen inguruan buena erakuts ziezadakeen edozein argi tindi, edo aztoramenezko kexuak estal zitzakeen zeingura hots. Gor bihurtu ahalko nintzen bestela.

Eta bat-batean ontziaren brankak ura ebakitzean sortzen duen hots zorrotza eta haizeak oihaletan egiten dituen lantanak aditu nituen. Beste ontzi bat zetorkigun gainera, nonbait.

Zaldia ni neu baino lehenago izan zen haren jakitun, antza, bere gorputza beheari kentzeko halako ahalegina egin baitzuen, masta-zati gure gainean jausia pittin bat mugiarazi zuena.

Zirkin hartan zeruko atea zabaldu zitzaidan. Minari gor, gorputza haren azpitik atera ahal izan nuen-eta, eskerak eman nizkion zaldiari.

—Aunitz esker! —hori horrela zergatik nioen jakin ez arren halaxe esan nuen, eta era berean minak kasik konortea galarazi zidan.

Zutitu nintzen-eta, zaldiarekin esker oneko, otu zitzaidan hura mastaren azpitik libratzen ahalegindu beharko nukeela. Zer nioen osterazaldia libratu. Ezta ahal izanda ere.

Ontziaren bizkar gainean alarauak ez ziren isiltzen. Sorgin-haizeren batek harrotuak legez, han eta hemen keak ziren. Keok urratuz nire begiek ikusi ahal izan zutena, ene. Alarau, txilio, uhuri, aiene, oi, niri, hel, lagundu, gizonak zeuden minaren minez behean arrastaka.

Pauso bi egin nituen, inori ezertan lagundu ahalko ote nion. Hartan nintzelarik, beste ontziaren enbatak oreka galarazi zidan. Oinek kutxa edo halako baten kontra jo zuten. Bertan behera joan nintzen.

Harrezkero sortu ziren zarata eta hotsetan abordaia-renak igarri uste izan nituen. Egun argia odol koloreko zetorren.

Tiro hotsak aditu nituen.

Ni nengoenetik gertuan baten batek azken arnasa eman zuen, Herioaren hotza etortzeari egiten zaion agurra ez baitago beste ezerekin nahasterik. Zaldiak irrintzi egin zuen, nire izu laborria bere egin balu legez. Kexa neuk adierazi beharrean, berak. Begiak ontziko bizkar gaina baino hatz bat gorago jasotzeko beldurrez kutxaredo harexen ostean gorderik, jende frankoren oinak ikusi nituen. Zoramenezko dantzan. Zaldiak irrintzi egin zuen, beste behin ere. Ez nintzen ni baitakoa.

—*Sir!, Seigneur!*

Kutxaren ondoan, ene alboan, mutiko bat kukuka paratu zitzaidan. Zerbait galdetu nahi zidala, eta zelan egin ez zekiela, halaxe ebatzi zuen. Endelegatu niolakoan nago, hala ere. Zer-eta zaldiari egur zati hura gainetik ken geniezaion nahi zuela ulertu nuen. Nik oster ahan hilik-edo zetzan emakumearen aldera egin nuen.

—*The horse!, Sir!, Seigneur!* —berba bakoitza zehatz endelegatu barik ere banekien zer ziostan; zaldia azpian harrapaturik zeukan masta zatia gora altxatzeko ahalegin betean ari baitzen, lepoan eskegita zeraman zorroari dantza eraginez. Eta, miraria, mutiko iritzi nionak morroskoa zela erakutsi zuen, nire eskuen premiarik barik erdietsi baitzuen egurtzarra kentzea zaldiari. Mihia ezpainetan kanpora zuelarik. Gorri eta lodi.

—*Shit!* —esan zuen, eta gora altxatu pittin bat egurtzarra.

Zaldiak, libre eta aske, nire albora egin zuen.

Aurpegia hatsaz lastandu nahi zidala-eta, ezinezko iritzi nion hango guztiari. Nireak aspaldi egin zuela, eta

morroskoa, berriro mutiko, aingerua zela, zaldi ilun hura berarekin zekarrena, eta harexen gainean eroan behar ninduela, eta errukiz edo, ez ninduela bakarrik eroan gura, ezpada emakume ezin ederrago batekin batera zaldia-  
ren bizkarrean elkar besarkaturik, halaxe pentsatu nuen. Zeren eta begiak aingeru neritzon gazteari aurpegira hobeto begiratzeko jasotzean, hantxe ikusi bainuen gorputz hura. Ala gorpua ote zen?

Ahuspez zetzan arren, emakumezko batena zela egin nuen nire artean, halako arropa luzeetako bat baitzen soina janzten ziona. Eta adatsa zuen luzea. Haltz hostoz biluziek neguan izaten duten kolorekoa. Eder ederra.

—*Sir!, Seigneur! French?* —ez zidan bakerik ematen.



ATEA ZABALDU ZEN.

—*Sir!, Seigneur! Ça va, french?*

Ahotsaren jabea baino lehen zaldia ikusi nuen. Ezagun egin zitzaidan. Lepoaren inguruan errautsik barik eder-eder zurda, harexeri tinko eusten zion mutiko irudiko morroskoa ere ez zitzaidan arrotz. Ezta lepoan eskegita zeukan zorroa ere, larru ederrez josia zena bera.

Hari ezer esateko astia izan orduko esku batek kanpora erakarri ninduen, bortxa handiz. Belauniko jausi nintzen.

—*French?* —barreak eta algarak aditu ziren—. *Spanish!* —zioten, eta—. *Shit!*

Jendeen oinak nire gainera etortzen ikusi nituen. Gora begiratu nuen. Aldra sumindu baten erdian nengoan. Agureak eta atsoak, neskato-mutikoak, andreak, gizonak, eskuetan batzuek makilak beste batzuek harriak, baten batek aiztoa, baita soka muturren bat ere beste inork, neure gainera zetozen guztiak. Guztiak zeukaten zauri egiteko zerbait, guztiak irainen bat ahoan, han atzean sorraio ikusi nuen gizon argal ilegorri batek izan ezik. Mutu,

esku zabala altxatu zuen, eta niri keinu egin, diosalaren legean. Hantxe urkatu behar ote ninduten, gero! Gizon haren keinuan bizitzari agur esan behar niola endelegatu bainuen.

Hartan, mutiko irudiko morroskoak zalditik behera egin zuen, besteen txilioen artean ukalondoka leku eginez nire albora etortzeko.

—*Sir!, Seigneur! No french?* –zioen.

Boneta dotore baten hegalpean erdi ezkutuan, haren hazpegiak txori jaioberriarenak ziren, nolabait esan, begiak baitzituen borobil eta gorri, ezpainak haragiz nahikorik babesturik ez, eta belarriak irtenak. Eta mihia beti ezpainen artean, hala arnasa hartzea errazago balitzaio moduan. Gorputza zuen handia baina, adimendua ez, itxuraz, haren adinekoa. Irri egin zidan, eta horrexetan ageri hura bera baitan zena; ez eta mutikoa ere, umea! Ontzian zaldia eskatu zidana zen-eta, ezagutzen nuen keinua egitekotan nintzelarik agindu zakar batek aldenarazi zion nire ondotik.

Agindu hark *shit!* izan zuelarik buztan, berba hori, behintzat, endelegatzen hasi nintzela eman zidan; kaka zaharra.

Bada, *shit!*, kaka zaharra! Agindu haren ostean ostiko galanta nabaritu bainuen giltzurrunen aldean.

—*My Lord!* –mutikoak halaxe aldarri egin zuelakoan nago.

Durdituta, ostikada nondik etorri zitzaidan begiratu nuen. Dotore jantzitako gizon bat ikusi nuen, gerrian ezpata, kokotsean bizartxoa, hortz artean irriaren adurra, begietan gorrotozko bozkarioa eta bonetan luma luzea,



halaxe zegoena zaldi zuriaren gainean harro. Beste ostikada bat opari egingo zidan egon nintzen. Edo, zelan nengoen belauniko, halaxe lepoa bertan egin. Ez zion ekin. Haatik, jakaren lepotik eutsi zidan, eta halaxe zutunarazi. Ez dakit beste ostikada bat baino okerrago ez ote zen izan, behin nire oinen gainean, listuzko euri batek busti baitzidan aurpegia.

*Lord* hark beste agindu bat eman zuen, jendeei zuzendua, berbaz endegatzerik izan ez nuen arren bere ondorioez ondo konprenitu zuena. Harexek atertu eragin zuen eta euri likitsa.

Jakatik eutsita ninduenari laguntzera mutil bi etorri ziren, galtzarbeetatik tinko hartu nindutenak. Baninderoaten.

Hartan sentitu zuena zer izan zen esan beharko banunik, edo inork masta eta aparailurik barik ez ezik nork maneiatu ez daukan ontziari bere arimaz itaundu balio, berdin-berdin izan zatekeen. Ez nik ez ontziak jakingo genukeen erantzuten. Ontziak ahorik ez duelako, eta nik buruko eskifaia galdurik neukalako. Ozta-ozta nekien nire oinak gobernatzen, eta doe hori ere galduko ote nuen otu zitzaidan halako batean. Loturik nindutenek airean jaso baininduten, zertan ziren ez nekielarik. Zintzurra egin beharko ote zidaten, gernuak aske egin zuen nire galtzetan bidea. Algarak areagotu ziren. Listuzko euria ere bai.

—*Tranquilo!*

Ahots batek halaxe egin zidan diosala, Gaztelako erromantze arruntaz, atxikirik nindutenen eskuek askatzen ninduten aldi berean. Gurdi baten gainean nengoen, gurtetxean!, bistan zenez. Bistan zen legezen han ez nintzena preso bakarra. Lasaitzeko zioetanaz gainera baziren han

beste gizon bi. Isilik. Denak ere, ez dakit nik zoro-erome-nez ala etsipenez, begi ninietan eldarnioaren arrastoa dantzan zeukatenak, hezurak larruzaletik irten guran zeuzkaten moduan. Herio urren, esango nukeen.

Soinean zituzten janzkiak hain zeuden urraturik eta kasik galdurik, nire jaka eta galtzei alderatu nizkien. Aberatsa ematen nuen, zinez. Oinak, berriz, nireak bezain hutsik zituzten-eta, horretan guztiok elkarren pare. Eskerrak denontzat eguraldi epela zegoena.

—Ez nauk ezagutzen? —lasai egoteko esana zidanak jakin gura izan zuen.

Nondik nora ba nik hura ezagutu? Ezetz esan nion, bere lengoaian, hots, Gaztelako erromantzean. Ez nintzela iraganeko ezertaz oroitzen.

—Hobe —erantzun zidan, hotz eta motz.

Ez zen gure artean beste barbarik egiteko tarterik izan, gurtzainak zartailuaren mehatxua egin baitzigun, isiltzeko. Eta zizt! hura airean joan zen. Haatik, ez zigun guri laztan egin, endaitzean loturik ziren zaldiei baino. Hala eta ere, izutu egin ginen.

Ahoa izu hark josita, ez ginen beste barbarik egiten ausartu. Hala da ze, ezagutzen ote nuen itaundu zidan gizona han izanik hari berbaz ezin zuzentzea, hura bai mingarria. Gizon hura izan ahalko nukeen neure buruaz zerbait esateko gai eta, hara, ezin, mila deabruren uzkiak! Ziega neukan etxolan geratu zen kutxaz oroitu nintzen. Ba ote zegoen hango pergamuen artean neure buruari argitasunen bat ekar ziezaiokeen ezer.

Lehenago mutiko irudiko morroskoaz eta zaldiaz gogoratu, gero kutxarekin, akorduan zer edo zer gordetzeko

ahalmena banuen eta, hara!, ez nintzen erabat galdua. Laster batean urratu ahalko zen iraganekoak gogora ekartzeari galarazten zidan oihala. Mutiko morroskoaz eta beronen zaldiaz zelan akordatu nintzen, *Lordekin* zerbaiten akordua izan behar nukeela sentitu nuen. Zer, hori laster igarriko nuela senti nezakeen.

Nire akorduen erditze minetan, zartailuak zizt egin zuen, bigarrenez. Zaldientzako agindua zen.

Astiro abiatu ginen, gurdiaren orpoetan guztien buru egiten zuen ezpataduna, *Lord* hura, zaldi zuriaren gainean. Gero, zaldi beltzean zaldun, pittin bat atzerago, han zetorren mutikoa ere. Tartean, oinez, gizon armadunak zetozen, armak gorabehera gerrako ofizioakoak ez zirela agerian zutenak. Mutikoa berari begira ninduela ohartu bide zen, keinua egin baitzidan zurdatik esku bat askaturik. Bere handian zelarik edo zamalkatzeko halako ezer gabe ere zein ondo maneiatzen zen miretsi nuen. Bada, haren zaldun airea gogoan handik aurrera hari *Sirseigneur* izena eman ahal niokeela-eta, barre egin nuen. Nire barreak irri bihurtu ziren, hura aldiz mutiko eta aldiz morrosko begitantzen zitzaidala eta, *Mutiko Morrosko* ere iritzi niezaiokeela ohartu nintzelarik. Burutik egina nintzela, Gaztelako erromantzeaz berba egin berri zidan besteak hartantxe hartu bide zuen ziurtasun osoa. Burua ero, irriak ere eroarenak nik. Mutiko morroskoak osteraz barre zabal batez erantzun zien nire irriari. Eta hartan gurdiak koskaren batekin jo zuen. Gurtetxearen luzean bilinbolaka joan nintzen. Besteak euli urrun bat ikusi balute bezain gelditu lotu ziren, aitzitik. Hobe nuen gurdiko lagunak legez eroso jarritako joateko egoera bilatu, eta eskuez zeri eutsi topatu,

bestela bideak hautsiko zizkidan hezurrak, eta bilinbolek urratu erredurak. Gurtzainaren aldean paratu nintzen, besoak belauenen inguruan bildurik, kokotsa tente eta burua gurdiko ohol artezetan eusten. Halaxe zegoen gazteleraz hitz egin zidana bera ere, nire artean *Gaztelau* irizten hasi nintzaiona. Mundua ordenatu behar nuela eta, horretarako behinena inguruan nituenei izen bana ematea zelakoan ekin nion ezizenak asmatzeari. Batentzat bat, bestearentzat bi, gurdiko beste bientzat ez nuen ez izenik ez ezizenik, oster, erruki hutsa baino. Lepoa lokaturik bezala zeuden. Kokotsa lepo gainera laxo jausita baitzuten, indarge. Biek.

Berbaren bat esango niekeen, gizalegez. Zartailuaz oroiturik, oster, ezpainak josi nituen.

Erredurez gogoratzea berez etorri zen, hantxe bainituen deika. Horrek esnearen akordua ekarri zidan. Jendeak ziren aldera begiratu nuen, titia eman zidana ezagutu ahalko nuen edo. Esku batetik oratuta mutiltxo bat zeukan huraxe zela esango nukeen, begira bainuen, eta hala nuela oharturik libre zeukan eskua bularrera eroan baitzuen, handik hartua nintzela esateko, ausaz. Nire minen erdian haragian zizt egin zidan haren keinuak. Bularrak hanturik igarri uste izan nizkion.

Esnea berak handik emana zidala, edo agian bihotz-bihotzez erruki ninduela esan gura izango zukeen. Nork jakin. Eta jendeen txilioek egiatan ziostaten baietz, errukigarri ginela. Berbak zehatz endelegatu ez arren, esateko moduetan igartzen zen guganako herrarik bizienak bizi zituen jendeok. Hantxe jota akabatu gintzaketen, erarik ukanez gero, laster jazo zenak erakutsi zigunez. Gurtetxe-ko abaroan ezkutatu nintzen, badaezpada ere.

Irain eta laido besterik ezin izan ziren berbak eta txilioak nahikoa ez, antza, jende haiek, halako batean harri batek jo baitzuen arrotz mintzatzen ziren preso bietako bat. Buru-buruan. Ziplo jausi zen. Haren odolak oinak busti zizkidan.

Zaldizkoak, *Lordek*, iso agindu zuen.

Mutiko morroskoaren zaldiak ere iso agindua aditu zuen.

Zergatik ez nekiela, hatz luzea oinetako odoletan busti nuen, eta ahora eroan. Horixe egin nuen lehenik. Gero ostera, burua belaun artean gorde nuen, harriren batek harrapa ez nintzan. Horretara oin hutsen parean ahoa, haietako odola mihiaz garbitzeari ekin nion. Zoroaren ez-tia, gozoa guztia! Egarri nintzen, hain segur. Zaurituaren lagunak, berriz, haren atorrari zati bat erauzi zion, eta gaixoari buruaren inguruan lotu, odoljarioa hantxe eten zedin. Berriz ere nire jakaren dotoretasunaz jabetu nintzen. Ez ziren *Lordenak* baino dirdira gutxiagokoak. Agintea harena zen, ostera.

Halaxe, *Lordek* aldarriz ekin zion jendetzari agirika, joan zitezen euren zereginetara, edo etxeetara, edo beste edonora, zer dakit nik. Jendeak nagi mugitu ziren. Batzuek artean harriak eskuetan zituztela-eta, gogoz kontra behera jausten utzi zituzten. Pittin bat lasaiago, eta ahoan odolaren bustia, zein egarri nintzen berretsi nuen. Eman ahalko zigun norbaitek ur tanta bat. Zaurituari kenduko niokeen, osterantzean, bekokian behera zeriona.

Urik guri eman, nork, ostera. *Lord* hark berak ez, hain segur. Ezta jendeek ere. Jendean ura eskatuz gero banekien zer eman ziezaguketen. Listua. Nolanahi ere, *Lorden* agin-

duari men eginez handik aldentzen zihoazen, euren etxeetara edo.

Esateko modu bat da etxeetara aldendu zirela. Gurdia tarte batez han geldirik zela-eta ingurura begiratzean ohartu nintzenez, gaztelu erdi eraitsi baten inguruan ziren etxoletara egin zuten. Teilatuak egurrez eta abarrez eginak ziren, eta harriz eta buztinez hormak. Gaztelua, ostera, harri zuriz osotua zen. Begiak haiek denak baino atzerago luzatuz itsasoa antzeman nuen. Handixe zetorren haizea. Haizea baitzebilan, kirri eta zirri.

Haizea nondik zetorren jakin guran, sen hutsez, begiekin itsasoko marra urrunaren eta ortziaren arteko alde korrituz eguzkia non zen bilatu nuen. Horretara, gure atzean legez han aurrean ere itsasoa geneukala ohartu nintzen, neure buruari haizeak mendebaldetik jotzen zuela niotsolarik. Haize hark berak laztantzen zituen han eta hemen ageri ziren garitzak eta soroak. Irlaren batean ote geunden sartu zitzaidan buruan. Zurt eta mira eginda nengoen. Zurt, irlan geundekeela eta. Miraturik, hori igartzeko nire trebetasungatik. Baina ez huts-hutsik azken horregatik.

Benetan mira eginda utzi ninduen ez zen irlan egoitea, edo haizearen bidea igartzeko trebetasuna. Ez zen izan, ez eta ere, berriz bideari ekin geniolarik hartan barna agertuz joan zitzaizkigun denetariko beste jende berrien iseketan, barreetan, mehatxuetan, listuz bustirik zetozkigun beste hitzetan, ulertzen nituen hitz apurretan, behintzat, «Deabru espainiarrok!» eta «Erromako Antikristoaren kumeok!» zioskutela konturatzea. Erabat mira eginda ez ezik espantuz beterik ere utzi ninduen besterik izan zen.

Diodan moduan, irla begitandu zitzaidan hartan barna eginez gindoazen, bidean behera, eta bide-hegaletan han eta hemen, lerro-lerro eta tarte doi-doi neurtueta, baziren haggak, edo taketak, edo dena delakoak; luze-luzeak, lurrean sakon landaturik behar zutenak. Bada, goialdea hain beltz zuten, adaburuak erretako zuhaitzak zirela esan zitekeen. Ezin, ostera. Adarren arrastorik mendreana ez baitzuten inondik ere ageri. Eta adarrik barik, zein zuhaitz? Misterioak muine-raino durduzatu ninduen. Itzelak ziren.

Habe erdizka erreen hurrenkera guztian, eta bakoitzaren oinean, baziren berriz ere gizon armatuak, bakoitzean bi edo hiru, guztiak ere agerian zutenak armatan egon arren gudarako trebeegi ez zirena. Gure segizioan zetozenak legez, pikak zituzten eskuetan, laborariak aitzurraren kirtena zelan, halaxe. Halako taldetxo baten ondoan igarotzen ginen guztietan benazko agurra egiten zioten *Lordi*, berba beroak armetan kide zituztenei, trufa berriz zaldizko zetorren morroskotxoari, eta mehatxu pikekin guri.

Bada, haben ilararen alboan aldats behean, gure gurdiaren antzeko beste bat lotu zen segizioan, gu bezain abaildurik ziren beste gizon zenbaitekin. Zenbat, ezin esan nezakeen, gurdian sartu bezain arin etzan baitziren. Presoak zirena, horretan ez nuen dudarik egin; kapera itxurako baten atarian zain zegoen beste gurdian sartze-koak zirenekin ere ez. Gizonezko bat agertu zen atean, eta armadun bik hura gurdira gidatu. Ohi moduan, jendeen listuek busti zioten gorputz erdi biluzia. Berdin jazo zitzaion hurrengo presoari. Eta hurrengoari. Halako batean, ostera, denean aztoragarriena izan zena jazo zen.

Nik neu ikusi ahal izan nuelarik, emakumezko batek kaperatik kanpora egin zuen, preso haien ilaran azkeneko.

Pauso baldar bi egin zituen, adatsa airean.

—*Ramera! Maldita bruja traidora!* – aldarri eroa egin zuen gure gurdian norbaitek. Nork-eta, lasai egoteko esan zidan harexek. Nondik edo nondik ezagutu bide ninduenak. *Gaztelauk*, alegia.

Emakumeak burua gora altxatu zuen, eta gure aldera begira paratu zelarik, adatsa ez ezik hazpegiak ere igarri uste izan nizekion. Hala eta ere, ezin izan nuen ahanzturaren oihala urratu, begiradak ez baitzuen luzaz iraun. Emakumeak burua makurtu zuen, eta nabarmen-nabarmen behera tu eginez erantzun *Gaztelaren* irainari.

Tu egin zuen behera, bai, halaxe erantzunez *Gaztelaren* laidozko hitzei. Gizonak gurditik kanpora egin nahi izan zuen. Zartailuak airea ebaki zuen, zizt, eta hartantxe amaitu haren zirkina. Hala da ze, *Gaztelauk* eta emakumeak elkarren ezagutza bazutela izan zen atera nuen bakarra. Edo bestela emakumeak gazteleraz bazekien, horixe zen dena.

Minez, gizonak berriro egin zuen aldarri. *Maldita bruja!* Sorgin madarikatu hori. Behin eta berriz *maldita bruja*. Eta *ramera!*, zuzen endelegatzea kostatu zitzaidan berba horixe erabili zuen. Eta *traidora!*, etoia! Eta zartailuak ere zizt eta zizt. Emakumeak argoi egin zuen gurdira, berak bere buruarekin.

*Lord* edo zena zelakoa parera etorri zitzaigun, ezpata eskuan, norbaiti zintzurra egiteko moduan.

Mutikoak bere *Sir!*, *Seigneur!* deiak egin zizkidan. Zerbait adierazi gura zidan. Zer baina! Zaldia orpoen



aginduz mugiaraziz *Gaztelauk* sorgin iritzitako emakumearen aldera egin zuen, trostan.

Nahiz eta zartailuaren ziztueta batzuk nire larruan egin oihartzun mingarri, emakumearentzat baino ez nuen burua nik. Areago mutikoak haren gurdiaren parera iritsirik zalditik zerbait esaten ziola, eta emakumeak irri eta hitz eginez erantzuten ziola ikustean. Jakingurak ez zidan bakerik ematen, hara. Haatik, jakin-min eta guzti, eta beste minen erdian egonik ere, eta hari sorgin eta madarikatu aldarrika esan zizkion *Gaztelauk* azken hatsa eman behar zuela begitandu arren, bozkarioz bete zitzaidan gogoa.

Sorgin madarikatua? Ontziko bizkar gainean ahoz behera etzanda ikusi nuenaren adatsa eta harena, bat! Ahanzturaren oihalean urradura bat egin zen, eta akorduaren argia handixe sartu.

Masta zatiak jo ondoko akorduak etortzen zitzaizkidala jabetu nintzen. Geroz eta argiago, aratzago. Haren aurrekoek itzalpean segitu nahi bazuten ere. Mutiko morroskoari begiratu nion, eta halaxe etorri berriz akordura ontzian ikusi nuena. *Lord* bezala. *Zaldia* bezala. Gorde ahalko nituen gomatu haiek buruan bizi-bizi!

*Gaztelauk bruja, traidora* eta *rameratzat* madarikaturiko emakumeari begiratu nion.

Helga!?

HALTZAREN NEGUKO KOLOREKO adats ederra eskuetan hartu nuen, eta hatzak han sartu, ile luzeen artean asunak balitu adinako tentuz lehenik, laztanetan gero eta, lotan ala hilda zegokeen, azkenik samako zainetaraino ausartu nintzen.

Odolaren kolpe ahulek zioten artean bizirik zela.

Ahoz gora jarri behar ote nuen egon nintzen, han gertuan mutikoak zaldia askatzekoa egina zuela ohartu nintzen arte. Gaur da eguna oraindino nagoena hura dena ez ote zen izan miraria. Zaldiarena batik bat.

Izkiriaturik utzi dudari moduan, aurreko hanketan belauniko lehenik, atzekoez indar eginez haiei lagunduz osteraz, zaldia bafadaka zutitua zen. Behin hala, uhalak askatu gura izan zituen, egurraren kontra igurtziz burua, gaixoak.

Beldurrik batere gabe mutiko irudiko morroskoa muturrera urreratu zitzaion, eta esku batez zurda laztandu, tentuz, xeratsu, beste eskuaz oihaletatik eusten ziolarik. Hurrengo, belarrira mintzatu zitzaion, oihaletatik laxatzen zizkion aldi berean. Halako koplak egiten amaitu

zuenean zaldiak esker oneko irrintzia egin zion. Eman zidan orduan ohartu zela ni han nengoena, orduantxe izan baitzen zaldiaren hatsaren lastana nabaritu nuena, zeren eta animalari oihaletik oratzeari utzi barik, nigana zuzendu baitzen, «*Sir!, Seigneur!*», eta beste berba endelegatzen gaitz ziren batzuk esanez. Antza zenez, zaldia jagon ahal izateko nire oniritzia eskatzen ari zitzaidan.

Bere txori-begietara begiratu nion, adats zoragarria atzamar artean lastanduz.

Isildu egin zen. Eta bai. Txori jaioberriarenak zituen begiak. Bada, txori-begi haiek kliska egin barik, adurra zeriola so egin zidan. Luzaz. Itaun mutuan, geldi. Egon nintzen han egiten zena endelegatu gura eta ezinak eragiten zion harrimena zela hark begietan ageri zuena. Baina ezta hori ere. Zaldiaren itauna egin zidan.

—*The horse?*

Baietz, buruaz halako keinada ahul bat egin nion, hartzeko zaldia, huraxe baldin bazen benetan nahi zuena. Ezin esan niokeen animalia norena zen ez nekiela, eta hartzeko, nigatik. Eta nirea izan zitekeela emanda ere ni neu nor nintzela gogoan ez nuela-eta, bost zidala zaldiak, horixe esan niezaiokeen, zer arraiio! Bizkarrean kolpe galanta hartuta nengoen, giltzurrunen gaineko azala erreta neukan, eguzkiak gorago egitean egarriaren egarria are oinaze handiago bihurturik nuen eta, finean, tristura hondorik gabeko batean jausten ari nintzela sentitu ahal nuen, ez besterik, inguruan zebilen anabesak eragiten zidan izu, laborri eta espantuekin batera, han behearen gainean zetzana artean bizirik zela sentitzeak eragiten zidan hunkimenarekin gainez eginda ni neu ere.

Mutiko morroskoak zerbait igarri zuen, zorroan begiratu baitzuen, bila. Ezezko keinua egin nion, behar nuena ez zegoela han. Bada, zorroan begiratzeari utzita, bizkor-bizkor bilatu zuen inguruan. Eta zerbait antzeman. Pegarra.

—Ura —esan nuen hura ikustean.

Ulertu zidan. Zeren eta katilu bat bilatu zuen, urez bete eta eskuetara eman zidana.

—*Water* —esan zuen. Ito beharrean edan nuen.

Aserik, han alboan utzi nuen katilua. Eta emakumearen adatsaz atsegin nahikoa harturik ordura artekoan, bannuen haren bisaia ikusteko gogoa. Tentu handiz kokotsetik hartuta, lepoa bihurtu nion. Hura edertasuna. Nire biziko dardara bortitzenak jo eta osorik hartu ninduen.

—Helga! —esan nion, izena nondik etorri zitzaidan ez nekielarik.

Begiak pitin bat zabaldu zituen, betazalak elkarren erztetik libratzea neke handi zitzaion eran. Begi inguruetan zituen zimurdurek harritu ninduten, bat-batean zaharra-go begitandu baitzitzaidan. Esan zitekeen adatsez bat eta zimurretan beste bat, batean bi zela. Neskatoa eta andrea, arraioa!

—Helga! —berriz esan nion.

Begietara zein aztoramen handiz begiratu zidan, ni ikusteak, edo aditzeak, izutu egiten zuela begitandu zitzaidan. Oker nengoen, oster. Gero jakin nuenez, nik izen hura esateak eragin zion aztoramena. Artean ez nekien-eta, katilua ezpainera eman nion, edan zezan eta hartara bakea etor zekion.

Bitartean, mutiko morroskoak bazeukan topatuta zal-diari edaten emateko modua, hantxe baitzegoen animalia,

oihaletik lotuta, kokospean jarritako erretilu sakon bate-tik egarria asetzen. Eta zer izan zen orduan kontua, animaliak ura irenstea sortzen zuen hotsak emakumearen adimendua hartu zuen, eta begiak hangoxe aldera bihur-rrarazi.

—*Asabaxe!* —esan zuen ahul, *Azabatxe* hitza estrope-zuka ebakiz.

Mutiko morroskoaren aurpegia argitasun huts bihur-tu zen.

—*Asabaxe*, izena al da? —galde egin zuen ingelesez; harrezkero burura behin eta berriro etorri zitzaizkidan hitzak izan ziren, gero eta gero ere, eta entzunaren entzu-nez, endeleгатzera iritsi nintzenak—. Izena al da?

—*Yes* —erantzun zion.

Eta *yes* hura zelan esan zuen, *ihes!* esan izan balu mo-duan, hitzak laztan egin zidan. Laztan zitala. Handik au-rrera inori *yes* esaten entzungo nion ia guztietan *ihes!* adi-tu uste izango bainuen nik.

BESTE ZENBAIT PRESOREN ILARAN azkeneko gurdian igo-tzen ikusten ari nintzela bezain ziur, Helga!, haren grazia Helga zela erabaki nuen, ziurtasun osoz. Ziurtasuna non-dik zetorkidan ez nekien, ostera. Ontziko akorduek izen horixe zekarkidaten-eta, ahanzturaren ilunpetatik irtete-ko atea izena bera zela otu zitzaidan, eta, harrigarria dena, izenarekin batera, Helga!, kantu hura zebilkidan berriro buruan; Agirreren arpoia, bai arpoi ederra.

Izena eta kantua, kantua eta izena, Helga, zer egin ne-zakeen, bada, harexeri begiratu baino. Sugeak zelan hala-xe bidean astiro aurrera eginez bideko bihurturretan hiru gurdiak ia elkarren parean suertatzen ginelarik, edo aldats piko batean gurea Helga zeroana baino gorago edo behe-rago geratzean, halakoetan, hari begiratzeko baliatzen nuen zirritua. Begiratu eta begiratu, iraganaz oroitzea eragozten zidan murrua urratu ahal izango nukeelakoan. Alferrik. Kantua zetorkidan, eta izena. Ez besterik.

Haatik, gazteleraz hitz egin zidanak, *Gaztelauk*, hare-xek zekikeen emakumearen berri, *maldita bruja* eta *rame-ra* eta halakoak mamurtzeari ekin baitzion, zartailuaren

beldurrik barik ordurako. Nolanahi ere, ez zen haren dantzaren hotsik aditu eta, gaitzerdi. Gurtzainak bidearen malkorrari zizkion begiak emanda. Neuk ere tarteka.

Gurdi, zaldi eta armadunen suge taxuko taldeak atzean utzi zuen gaztelu eraitsia zegoen muinoa, aldats beheara egin zuen etxe multzo baten arteko kalearen bila eta, hortik aurrera, etxe artean joan ginen, itsasoa berriro gure begien menean agertu zen ate. Hura zeruaren koloreko, lehor ertzeko zerrenda kasik karearen zuritasunekoa zen. Bestela, itsasoa atzean, itsasoa aurrean, non ere ginen hura irla zela ez nuen dudarik.

Bada, kaleko harrietan mailuarena egiten zuten zaldien apatx hotsekin eta gurdien karrankekin batera jendeen irainak jasan beharra izan bagenituen ere, eta beste gurdietako baten batek harrikadaren bat berriro pairatu, gure bidearen burua lar urrun ezin egon zitekeela erabaki nuen, eta poztu. *Gaztelaren* madarikazioak berritu egiten ziren, bai, bideak besteen gurdia ikusteko eraren bat eskaintzen ziguneko.

*Gaztelau* madarikazioak mamurtzen eta biraoka, eta hala eta guztiz ere zartailuak zaldientzat baino ez hotsik, gurdiko beste lagun biek elkarri ahapeka zerbait esateko egokiera antzeman zuten. Aditu ahal izan nizkien apurretarik ezer endelegatu ez nuenenez, argi egin zitzaidan ez zutena niri neuri ezagun zitzaidan lengoia. Arraioa, lau ginen gurdian, eta hiru mintzaira lauron artean. Nondik gentozkeen itaundu nion neure buruari, eta erantzunak aho zabalik utzi ninduen. Ni bai papaoa. Ala mila deabru, ontzitik gentozen. Denok. Adats eder eta betertz zimurtuko emakumea, beste gurdietako presoak, *Gaztelau* eta gur-

dian ziren beste biak, ni neu, den-denok. Baita zaldia ere! Guztiok keek eta jendeen alarauek harturik gogoratu berri nuen ontzitik etorriak, edo ekarriak.

Marinelak ala zer ote ginen, eskuetara begiratu nion *Gaztelauri*, eskuetara beste biei. Gero neure eskuetara al-dendu nituen begiak. Gakoren baten bila, alderatzearren edo, nik dakita. Nireak ez bide ziren oihal, soka eta aingura, aingura soka eta oihal, hala eta erria, erria eta hala, holako zeregin gogorretan lar ibiliak, orain diot hau. Orduan osteraz ez nuen holakorik igartzen jakin. Beste bi haiei eskuetara begira lotu nintzaientzen, harik eta gizonak aztoratu egin ziren arte. Begi zuriekin begiratu zidaten, buruan zer deabru nerabilen-edo, mutu.

—*Manos de artillero!* —artilleroaren eskuak; halaxe esan zuen *Gaztelauk*, zartailuaren azken ziztua ordurako urrun, konfiantzaz; hori besteen eskuez zioen, aldi berean bereak erakutsiz—. *Estas, de hidalgo!* —esan zuen—. *Soy Don Melchor de Pereda.*

Nik haien eskuei zelan, halaxe begiratzen zion *Gaztelauk* nire jakari. Eta ohartu nintzen. Sudur eta mutur eginda zegoen; bereak urraturik, eta nireak hain dotore eta osorik. Nago itauntzekotan izan zela ea zein aitonen semeri ebatsi nion. Zartailuak lehenago egin zuen airean berriro zizt.

Eskuetara begiratzeari utzi behar izan nion, bada, eta halaxe biztu zitzaidan gogoan beste ideia bat, alegia, zenbat lagun ginen han preso gindoazenak, ze preso gindoazen.

Lau gu, beste lau hurrengo gurdian, Helga iritzi niona zeroan hirugarren halakoan beste hiru preso zirena bane-kien arren, hara ere begiratu nuen. Mutiko morroskoa be-



rriro harexen pare-parean zegoen, zaldi gainean harro. Helga neritzonak, berriz, zurda laztantzen zion animalia-ri, eta berbaren bat esan zaldizkoari. Honek zorrotik zerbait atera zuen, Helgak ahora eroan zuena. Goseak ziztada izugarria jo zidan. Hobe beste begiratzea.

—Hamaika —egin nuen kontua. Hamar gizonezko eta andrazko bat. Ahoan jatekoren bat mamurtzen eta mutikoaren zaldia laztantzen ziharduena. Gogoa ontzira joan zitzaidan, beste behin ere. Lehenagoko gomuten haritik tenka, berriak etorriko zitzaizkidalakoan.

Halaxe ekarri nuen gogora mutikoak zaldiari edaten emateko modua bilatu zuena, eta oihaletatik oraturik, kokospean jarrita erretilu sakon bat, hortixe hasi zela zaldia egarri asetzen. Mihia eta ezpainak astrapalan legez. Amorruez.

Zaldiaren hotsak Helga esan berri nionaren begiak haraxe bihurraziti zituela ikusi nuen, eta aditu, zelan esan zuen «*Asabaxe!*, *Asabaxe!*», berba ebakitzean mihiak estropezu egiten ziolarik esan ere.

—Izena al da? —itaundu bide zion-eta mutikoak.

—*Yes* —erantzun zion.

*Yes*, bai, hain leun ze, berba bera baitako baketasunaren osinetik ateratako ura zela begitandu zitzaidan. *Yes*, ihes!

Jazotakoen gomutak gogoan gorde behar nituen, erabat zoraturiko nintzen bestela.

Mutikoak belarrira egin zion zaldiari, «*Asabaxe!*», *Azabatxe* esan guran besteak baino hots gehiagotan estropezu eginez. Agerian zuen. Adimenduz mutikotan lotua bazen ere, adinez ez zen horren gaztea. Masta zatia zaldia-

ri gainerik kentzean morrosko sendoenaren indarra erakutsia zuen-eta, hara haren urteen kontua nondik egin nezakeen. Tenteltxo zen. Sortzez. Horra.

Eta han zetorren. Segizioan. Bozkarioa bere txori-begietan. Zaldia ematen niola endelegarazi nionean legez. Horren gomuta hain nuen bizirik, gogoia ontzira itzuli zitzaidan hegan.

—Ei! —aldarri zorrotza aditu zen ontzian. Astrapalan zetozen. Armak eskuetan, tiro hemen eta tiro han, txilio-ka. Endelegatzen gaitz zitzaizkidan txilioak ziren. Eta alarauak gero, lengoaiak nahasturik. Eta gero mintzairarik erdiragarriena aditu zen; isiltasun moduko bat, tarteka-tarteka uhuriei leku egiten ziena. Isiltasun zitalena, hil haginekoen hotsek eteten zutena! Harik eta beste tiro hotsen batek, beste madarikazioren batek, beste biraoren batek, han zebilen ardailari hauspoa ematen zion arte.

—Ingelesak! —esan zuen emakumeak—. Ingelesak!

Halaxe zen. Ingelesak ziren gure gainera zetozenak. Bat, bi, hiru, hamaika.

Mutiko morroskoak zaldiari sendoago oratzen ziola ikusi nuen. Gero gure ondora etorri zen.

—*Sir, Seigneur!, My Lady, Madame!* —aldarrika.

Harekek salbatu gintuen. Ze pistoladun bat geneukan hantxe tiro egiteko atezuan.

—*My Lord* —esan zuen mutikoak—, *friends My Lord, friends*; lagunak, jauna, lagunak —*yes* haren ostean eta beste berba apur batzuek gainera ingelesez ulertu uste nituen hurrengo hitzak izan ziren.

Ez zidakeen ardura handirik izango *Lordek*, gurdien segizioan buru egiten geneukan berberak!, tiroa jo eta

bertan hil izan banindu. Adatsa besoetan eta nire ezpainak haren ezpainetatik hain hur, haragian ageri zuen zerua ukendu modukoa zen nire minentzat. *Lordi* begiratu nion. Pistola gerrikoan zeukan harrezkero.

—*Can you walk?* —ulertu ahal izan nuenez, ibiltzeko gai zenentz galde egin zion emakumeari. Baietz esan zion. *Yes*, ihes! Eta halaxe zutundu zen. Eta arean horrexegatik, zutundu eta behingoan ibiltzeari ekin ziolako uste izan nuen itauna ulertu nuena, ze, zer nekien nik ingelesez. Baina zutundu egin zen, berriro diot, eta ibiltzeari ekin, adatsa eder eta arroparen azpian soina lirain. Eta halaxe egin zuen *Lordekin*, eta harekin zetozen besteekin, ontziko bizkar gainean gora, brankarantz, antza zenez. Eta mutikoak bere aldetik oinez haiexei segika eusten zion zaldia-ri, zorroa beti dantzan. Eta animalia-aren izua bafadaka eta ostikoka baretuz joan zen. Eta halako batean emakumeak atzera begiratu zuen, niri agur keinu bat egitera edo. Eta gero suak eta keak harrotzen segitu zuten sorgin haizeek. Eta ontzian infernuko kondenatuen alarauek ez zuten amaierarik.

BIDEAN BEHERA EGINEZ itsasoa hantxe-hantxe izan genuelarik, gurdiaren banda bietara begiratu nuen. Ababorrean, hareazko beso luze bat gu geundena baino askoz luzeago luzatzen zen-eta, beso hari esker ordura arte irla iritzi izan nion hura lehorreko alde askoz zabalago bati loturik zela jabetu nintzen. Hala da ze, irlatzat jo nuena ez zen hala.

Mundu zabalago baten parte ginen, hain suertez. Edo hain gaitzez.

Bada, mundu zabalarekin zubi egiten bide zuen hareazko besoak ukabila ote zeukan etorri zitzaidan gogora. Alegia, mutur batean ez bazen bestean, guardiaren bat ote zegoen, haizurik gabeko inor sar zedin edo irten zedin eragozteko. Erantzunik ez, oster.

Balitzko ukabila ezin antzemanik, gogoa inguruari emanaz ahalegindu nintzen hura burutik kentzen. Gurdiaren ababorreko bandan itsasoa, istriborrekoan badia, zaldien buruen gainetik han aurrean eguzkia ostentzen ari zen-eta, mendebaldea non zen halaxe igarri nuen. Bigarrenez. Eta bigarrenez ikaratu nintzen. Ez hain zuzen ere

mendebaldea infinituan galtzen zelako, galdu ere galtzen zela ematen zuen moduan, beste arrazoi batengatik baino.

Han ziren berriro ere, harea zuriko besoan landaturik, adarrik bako zuhaitz erre antzekoak. Bidean barna etortzean ikusitakoek baino zema itzelago eginez itsasoari, zeruari, munduari, ni baitako automata harrituari.

Hartan egin zitzaidan argi izpi bat. Zuziak ziren zuhaitz taxukook, ezer baziren. Inoiz sutan izandakoak izanik, eta harrezkero sua amataturik ukanik, zentinela segitzen zuten. Beldurra eragiteko. Edo berriz iziotu beharko balira ere, arean. Bada, instant batez halaxe ikusi nituen. Bizturik.

Ontzian nindoan, gauaren ilunetan, eta han ababorreko bandan suak joan ziren pizten, banan-banan, harea ale apur batzuek orduen anpolaian behera egiteko behar izaten duten tarte igaroz su biren artean. Su batek beste bat biztu egiten zuen urrunago, beste horrek hurrengo bat, hurrengoak beste bat, eta halaxe. Seinaleren bat emateko.

Gomuten soka hartatik tenkatu nahi izan nuen arren, ezin beste akordurik gogora ekarri.

Zuziak! Ontzian gindoazela begiztatu nituen suak, zuhaitz taxuko suzi haixenak izan zirela, horra artean hartaz nekien bakarra, eta dena. Zuziok begien menetik kendu orduko azkenekoz begiratu gure izan nien-eta, hobe lepoa bihurtu ezinik lotu izan banintz. Han urrunean bazen zuziaren taxua barik urkabearena hartu nion ha-bea, begiek engainurik egin ez bazidaten gorpu bat bertan eskegita ageri zuena. Lipar bat baino ez zen izan. Nahikoa ni espantuz betetzeko, oster.

Gurdian preso zetozen beste begiratu nien, hartaz oharturik zerbait esango zutenentz. Ezer ez. Eldarnioak

ekartzen dituen mamuetakoa izan ote zen, goseak eta ega-  
rriak eraginiko ikustea ez ote zen izan, begiak igurtzi nituen.

Bihotza golkoan, hareazko beso luzea osorik begien  
menetik galdu genuen halako batean, eta harekin batera  
azken zuzi itzaliak ere bai. Urkaturik bazen haietan, batek  
zekien, ez nik. Eta hobeto, beharbada.

Gu preso ginderoazenek beren mundu txikia erakutsi  
nahi izan balute legez egin zuten. Ez genuen mundu han-  
diagora eroan gintzakeen hareazko alderantz jo, istribo-  
rreko bandara baino. Eta hantxe agertu zitzaigun badia,  
bere betean eder.

Inon ederrik bada, huraxe. Ontziak baziren han, uga-  
ri. Urrundik begiraturik ikusten ziren, hain ziren taxuz  
galantak. Haatik, eta beren galaitasun eta guzti, aparailue-  
tan kalterik ez zeukanik ez zegoen han, eta errearen hatza  
erakusten zutenak bat baino gehiago ziren. Ez nuen on-  
tziei luzaz erreparatzerik ukan.

Segizioak aurrera egin zuen-eta, halako batean badia-  
tik hurrago, gezi baten jaurtiaren distantzian, gaztelu itzel  
baten adarrak izan genituen. Haraxe gindoazen. Eta ez  
zen goragoko gaztelua legez aurrietan zegoena kasik, on-  
do gotor eta sendoa baino. Mundua urrunago sentituko  
nukkeen, orduantxe aditu nuena aditu ez banu.

—*Nuestra San Salvador!* —esan zuen *Gaztelauk*, alda-  
rri batean, behin eta berriro, eta hala zioen bakoitzean,  
«*Nuestra San Salvador!*», bizkortuz zihoan, eta halaxe ekin  
zion, aldarrika, harik eta gurtetxean zutundu zen arte.

Beste presoren bat ere gaztelaua zela egin nuen kontu,  
gurdietako batean «*Nuestra San Salvador?*» itaun moduan  
aditu baitzen *Gaztel Lauren* berben oihartzuna.

—*Si!* —ozen esan zuen *Gaztelauk*.

Zartailuak zitz egin zuen, eta behera etorri *Gaztelau*. Ziurtzat jo zitekeen Don Melchor de Pereda, aitonen semea bera, halako laztanen atsegina bere bizi guztian arean lehenengoz gozatzen ari zena.

Esku leuneko aitonen semeak «*Nuestra San Salvador*» esateko benetan zer ikusi zuen endelegatu guran burua pittin bat gora egin nuen, zartailuaren ziztadak hura noraino altxatzen utziko zidan, ikaraz. Ontzitzar bat ikusi nuen, ozta-ozta ikusi ere. Masta nagusi zuen ments, eta badiako beste ontziek baino askoz ageriagoan suaren arrastoak. Horra antzeman ahal izan nuen guztia. Huraxe bide zen *San Salvador* ontzia, hara.

Beste gizon biek ere berdintsu ikusi bide zuten arren, ikuste hutsarekin nahikoa. Ez zuten deus esan. *Gaztelauri* begiratu zioten, negarra betertzetan kanpora egiteko zorian.

Endelegatu nuen, endelegatu nuenez. Hala da ze, hura zen hiru haien ontzia eta, itxura zenez, nirea ere bai. Baita beste gurdietan zetozenena ere, zeren eta *Gaztelau*-ren hitzek gurdirik gurdi oihartzun egin balute baino bizkorrago, haietako presoen aldarriak aditu baitziren, lengoaia bat baino gehiagotan, bai, baina denen arteko anabasan «*San Salvador!*, *San Salvador!*», halaxe esaten aditzen zelarik. Hura entzunda ere gomuten haritik ezin ezer ekarrita, etsipenak jo ninduen.

—Handik hona, zerk ekarri nau? —itaundu nion neure buruari, eta erantzunik ez.

Hareazko besoa atzean utzita, eta zuzi erreak ez ezik badiako ontziak ere begien menetik galduta hain suertez, laster sartu ginen beste kale arte batean, eta jendeek berriz

ekin ziguten listuka eta irainka. Adur onekoak gu, ze, nahiz eta inguraturik ziren jendeak lehenagokoak baino askoz multzo handiagoetan bildurik izan, harririk ez ziguten jaurti. Hango armadunak ere taxuzkoagoak zirelako, hain segur. Eta beharko. Gazteluaren aurrean ginen.

Ez nengoen harria inoiz lehenago hain harri ikusita, esan nahi dut, hain sendo, ezta ere harri bat bestearen gainean gora eta gora ezer hain goi eraikia. Argi izan nuen gu hara eroatekoak ginela, eta hara ez zela, inondik ere, gosekil taxukorik inguratuko. Zaldiak eta zalgurdiak hainbat ziren han lotuak, barruan zirenak aitonen seme eta halakoak bide ziren seinale. Jende txiroek ez zeukaten han sartzerik.

Guk bai. Gu hara barrura gindoazen. Ez denak batera, ostera. *Gaztelauk* Helgari zion herraz oharturik, *Lordek* lehena emakumea sar zedin, eta gero haren gurdikoek segi ziezaioten, halaxe agindu zuen. Hurrengo, beste gurdikoak izan ziren. Geu azkenak, beraz. Eta azkenetan azkena, ni neu. Nire jakak eta galtzek zekiketen zergatik. Presoen artean hain ematen zuten nabarmen.

Bada, neu nintzen azkena gaztelurakoan, eta hara pikadun biren artean nindoala, mutiko morroskoak jendeen artean egin zuen, ateraino.

Hari segika nire begiek, gazteluko ate aurrean denen artean lebakoen ageri zen gizonari erreparatu nion; andadun kadira batean zegoen, haraino halaxe ekarrita. Mutikoak zaldi gainetik egin zion agurra.

—*Sir Francis! Prisoner! A friend of mine!*

Hurrengo esan zizkionetatik, hutsala da endelegatu niona. Hala da ze, eman zidan ziotsona zela, ba ze, *Azabaxte* ontzian hartua zuela, eta nik eman niola, aldiz zaldia-



ri, aldiz niri, aldiz itsasoa zen aldera ttu egiten baitzuen. Zin eginez bezala.

—U! —egin zuen jendeak, ni bezain zurturik; *Azabataxek*, ostera, hats egin zuen, mutikoak bere bizkar gainetik behera harrigarriro trebe egin eta batera.

Gizonari begiratu nion. Bisaia zuen zorrotza, edo halaxe begitandu zitzaidan, behintzat, bizartxoak matrail argala artez-arte kasik paparreraino luzaten baitzion. Makal zegoen, agerian zuen hori. Hain makal ze, agurea eman zidan, artean berrogeitaz urteko gizona zenak. Adinaren hori baina, haren gaineko beste kontu asko bezalaxe, denboraren buruan jakin nuen. Orduan esan nezakeena zen, zinez esan ere, gizona ez zela ontziko aparailuetan ibili gabekoa. Eskuak mahats aihenak bezain gordin, iharrak zituela igarri nion, haren parean igarotzean bostekoa luzatu baitzidan.

—*What is your name, man?* —galde egin zidan.

—Sebastian —esan nion.

Miraria izan ez bazen, gero, nik itauna ulertu izana, eta are mirari handiagoa hurrengo esan zuena endelegatu uste izana.

—Hara! Elkano hura bezala —esan zuelakoan nago.

Esan zuena esan zuela, izena bai aipatu zuen. Haatik, hartan lotu zen berbetatik. Barreari emateko. Eta hartan aurpegia argitu zitzaion, begietara txinpartak ekarriz.

—*Good luck!* —esan zidan, ingelesez, eta gazteleraz gero—. *Buena suerte!*

Berehala, barruan sartu ninduten.

Han zapaltzean hotzak oin zoletan ziztatu zidan. Behera begiratu nuen eta, hain zegoen hura garbi, hantxe

antzeman nuen neure buruaren isla. Dena azal eta hezur zen gazte baten aurpegia ikusi nuen. Neu bide nintzen, hazpegiak ezagutu ez nituen arren.

—*You!* —pikadun batek bere armaren muturraz kokotsa altxarazi zidan.

Salakoei burua tente begiratzeko agindua zen. Ozta-ozta bete ahal genuena, ala itsasoko deabruaren uzkiak! Beste begiratu baino ez zegoen horretaz ohartzeko. *Lordek* kanpoan zein ordenatan sar gintzaten agindu, halaxe geunden presoak han barruan zutunik; mutur batean *Gaztelau*, bestean Helga neritzona, enparauak horien bien tartean. Denok oinutsik, *Gaztelau* izan ezik. Den-denok belaunei artez eusteko ezinean, eta denon artean harriak buruan zauria egin ziona urrikalgarrien. Haatik, emakumeak besteok baino harroago zeutson, eta harro begiratu zidan, ni non-eta bere arerioaren parean egon nendin agindu zidatenean. Bada, esan zitekeen aurrez aurre ginela, eta hala egoteak begi urduri sentiarazi ninduela; nire soa aldentzera beharturik izan nintzen. Ederra zen, ederra zenez, sala hura. Bere ederrean ezin ederrago zela, eta behe gaina ispi-luaren antzekoa zela, hona hartaz esan dezakedan ia guztia. Hain nengoen ahul, goseturik, izu eta espantuz beterik, nekez erreparatuko niokeen paradisiko arbolari berari ere, holakorik inon bada, behintzat. Bestela, han jazo zena ziztuan igaro zitzaidala da gogoan argien dudana.

Nire hurrengo gure *Lord* sartu zen, eta hura sartzean ahots batek esan zuen, «Lord John Hawkins!». Ahaztu egingo nukeen izena, hain zuzen, gero eta gero hainbat gehiagotan berriz haren aditzerik izan ez banu. Berdin esan beharko nuke hurrengo sartu zirenen gainean.

—*Lord Thomas Howard!* —esan zuten, Hawkins bezain argoi sartu zenean beste bat—. *Sir Francis Drake!* —al-darri egin zuen ahotsak.

Han bildutakoen artean sortu zen berbaroa harenganako begiramendu handiaren seinale izan zen. Seinale izan zen moduan ordura arte denak han zutunik egonda hartantxe jesarri zirela. Guk hala non jarri ez genuenez, zutunik eusten segitu behar genuela jakin nuen. Hala da ze, zer ere zen han egin beharrekoa, hastekotan zen-eta, laburra izan zedin erregutu nuen. Nahiz eta arean hobeto izan ahalik eta luzeen luza zedin.

—Ez gaituzte hilko, urkatu hura bezala —halaxe esan zuen *Gaztelauk* nire belarrira, eta halaxe argitu berak ere gorpua ikusi zuela; laborria berritu zitzaidan.

Ez gintuztela hilko esan hark, eta heriotzaren itzala berba haixengatik hurrago ikusi nik, zeren eta hilko ez gintuzten ustea haren desio hutsa baino ez zen lege berean, preso gintuztenen desioa besterik izan zitekeela otu baitzitzaidan. Jaurti airera txanpona, eta aurkia edo bestela ifrentzua, bata nahiz bestea agertuko zaizu, baina bat. *Gaztelauk* bere biziaren alde egin nahi zuen apustu. Txanponak zein alde erakutsiko zuen, Salakoen esku zegoen. Hilko gintuzten ez gintuzten hilko, gora begiratu nuen, txanpona han sabaian balego baino aztoratuago.

—Drakek bostekoa luzatu zidak —esan nion gizonari, begiak han goian iltzaturik izan arren ezer ikusi barik.

Ahots batek denok isiltzeko agindu zuen. Hastekotan zen egitekoa zena. Eta ez bazen berehala hasi, mutikoagatik izan zen. Gure atzean, antza zenez Salako atean, haren boza aditu nuen lehenik, eta zotinak eta negarra oster.

Ulertu nuenez, barruan sartzen uzten ez ziotela-eta zen hura guztia. Zergatik ere zen, harrabotsa baliatu zuen *Gaztelauk*.

—Deabruaren kumea, Drake! Trufa egin dik! —dardarra batean esan zuen; gernuak kanpora egin zion, iztarrean behera, galtza urratuetan ildo bustia zabalduz.

Ez bide zen ni izan ezik inor, ezta bera ere, *Gaztelau*-ren esturaz eta esturaren ostekoaz ohartu, ziur bainaiz hala izanez gero barre egin zioketela. Hala eta ere, huraxe seinale nahikoa gizonak senti zezakeenaz jabetzeko. Lehenago txanponaren aurkia ikusi uste izan bazuen —«ez gaituzte hilko!», irmo esana zidan—, Draken niri bostekoa luzatu izan hartan heriotza eman behar zaionari deabruak egin gura dion azken keinu zitala igarri zuen, hain segur. Ifrentzua!

—Horra deabruaren ispilua daukan gizona, alajainko! —esan zuen, eta hura aditzean ni baitan oihartzun urruneko bat aditu nuen. Gaueko itzaletan zerbaiten geriza susmatu uste dugunean legez, ez nintzen gai zeren oihartzuna zen zehazteko. Arraioa!, eman ziezagutela heriotza, eman gura izanez gero, baina, arren, nik neure buaren berri osorik jakinda gero. Helga neritzonari begiratu nion, heriotza eman behar zigutenentz haren bisaian izkiriaturik balego baino zorrotzago. Heriotza eman, lehenago neurez hiltzen ez banintzen, halako ziztada mingarria sentitu bainuen bihotzaren parean. Ez zena izan hurrengo aditu nituenek eragin zidatena baino itzelagoa. Ni neu ere gernua askatzekotan izan nintzen.

Solemnidade hartaz ez naiz lar ondo oroitzen, zeren eta aitonen seme itxurako haiek guztiak zelan jesarri zi-

ren, eta elkarri erakutsi zioten begirunea eta batak besteari egin zizkioten keinuak hain izan ziren hileta airekoak, bai, heriotza eman behar zigutelakoak askoz indar handiagoz otu baitzitzaidan. Batik bat tribunaleko batek gutun hura irakurtzeari ekin zionean. Hori dena behin ateko anabasa aterturik izan zen, oster. Susmatu nuenez, mutikoa Salan sartzen utzi zuten, ene alboan igaro baitzen, eta jendeak ziren arteko mailetara joan, albo batera alegia.

Hura gutuna zela diot, zeren eta nekien ingeles apurra jakin barik ere endeleгатuko bainukeen Londres aipatu zutela, eta numero batzuk horren ostean, bistan zelarik egun zehatzen bat adierazi nahi zutela, guztiz oker ez bango abuztuaren bia, eta izen bat esan zuten Londres eta numeroen atzetik, gutuna nori zuzendua zen esan nahi zuen izena bide zena. Harrezkeroko hitzetatik, bakanak baino harrapatu ez nituen arren, neure buruarekin kontsolatu nintzen, pentsatuz amu guztietan ez dela beti arrainik ekartzen, baina askotan halako gutxi batzuekin ekarritakoaz gosea politico ken daitekeela. Hango nire jakin-gosea asetzeko, berba apur batzuk nahikoa. Izango nuen dena hobeto endeleгатzea, oster.

Gutuna bildurik, haren irakurtzailea itaunka hasi ziztaigun. Haatik, gaztelau izuti biak izan zirelarik lehenak erantzuten, ez zuten zer esan jakin, ez baitzuten, antza zenez, ezer ere endeleгатu.

Hartan, bada, Salako mahaiaren ertzean jesarrita zen gizon dotore jantzitako bat jaiki zen, eta guregana hurre-ratu. Gaztelau bien aurrean pauso bitara izan zelarik,

Gaztelako erromantzearen antzeko batean ekin zion. Salan guztiak lotu ziren ni bezain mira eginda.

Norberaren grazia eta izena izan zen lehenengo itauna, eta halaxe esan zituzten ahazturik ditudan batzuk. Nazioa izan zen bigarrena, eta halaxe esan zuten «*Castilla!*». Azkenik, ontzian bakoitzak zuen ofizioa jakin nahi izan zuen eta, «*soldados!*», harro esan zuten.

Haren ostean berriz ekin zion gutunaren irakurtzaileak. Bada, halaxe esan zituzten beste haiek denek bakoitzak bere nazio eta grazia, eta horraino ez zen eragozpenik sortu, ez badin bada haietako bakoitzak bere lengoaia bazuela, eta irudi zuela ingelesezkoak endelegatzeko gai zirela, ez baitzuten eragozpenik ukan zeinek bereak esateko. Nork zer esaten zuen, hori itauntzailearen ondoan izkiriatzaile zegoen agure batek izkiriatzen zuen, antza. Eta antza, diot, ez baitzen ikusten ahal mahaiaren gainean hark zer zeukan. Zeren gainean ere jarduten zuen, eskua grazia handiz erabiliz egiten zuen. Hantxe daudeke denen izenak ipinita, suren batek hango pergamuak erre ez baditu, behinik behin. Preso lagunen graziak, niretzat denak arrotzak, ez nituen gogoan gorde. Hala eta ere, ulertu nuen bi frantsesak zirela eta artillero zetoze la esan zutela, eta berdin esan zuten beste laurek, flandestarrak eurak. Baina, oi!, itauntzailea emakumeari zuzendu zitzaiolarik, «*Name!*» bortitz galdutuz. Graziaren hori, besteei eginda koaren kontra, nazioaz —«*almain*», esan zuen— eta senarraz —«*artillero*», erantzun zuen— itaundu ostean izan zen. Bada, ez, graziaren itauna egin ziotelarik ez zuen Helga esan, Maria baino.

—Maria!

Hara nik Helga esan nioenean begietan agertu zuen harrimenaren zergatia. Ez zen Helga, Maria baino. Bada Helga nor ote zen ez jakiteak arranguraz betetzen ninduelarik nire patuaz madarikazioetan eta aldi berean ni baitan hain soraio, ez dakit zenbat bider itaundu behar izan zidaten, «*name!, name!, name!*». Neure ordua baitzen.

—Sebastian! —esan nuen halako batean.

Gaztelako erromantzearen antzeko batean mintzatzen zena zuzendu zitzaidan orduan. Ingelesezt egin zuen lehenik, eta egin ere halako moduan egin zuen, non han ziren denak, gu presook izan ezik, algaratan paratu baitzituen. Lengoaia hartan zeukan kutsuagatik zelakoan, algaron egiazko arrazoia erromantzez zuzendu zitzaidanean jakin nuen.

—Sebastian! Munduaren ingurua egin duela dioten horren moduan? Ala Erroman ehortzirik den haren moduan, Sebastian? Beharko luke berorrek haren tonba bisitatu —begiramendu behartua zen harena—; bisitatu, bai, Sebastian donearen hobia Erroman, jauna.

Berriz ingelesez ekin zion, eta berriro aditu ziren algarak. Martiria berba esan zuenik, ez dut dudarik egiten, gero jakingo nituenak jakin nituelarik, batik bat. Eta martiria, nor eta ni izatekoa nintzela, horretan ere ez zegoen dudarik. Hark ez ninduen arduratu, ostera. *Martiri* berba, eta Erroma bera ere, misterioitsu zitzaizkidan eta, gaitzerdi. Ez ostera hangoentzat. Algarak aditu ziren, berriro agindu zorrotz batek isilarazi zituenak. Mahaian buru egiten zuena zuzendu zitzaidan.

—Sebastian, besterik ez? —halaxe zioetela begitandu zitzaidan. Isilik lotu nintzen. Itauntzaileak berriz luzatu zidan gonbita, esan nezan nire etxekoen izena. Eta ezin.

—Nazioa! —itaundu zidan hurrengo.

—Banekike, jakin! —pentsatu nuen. Baina horretan ere ez nuen jakin zer esan. Ezta astirik ere ezer gogora etorrazteko.

—*Vizcaino!* —esan zuen *Gaztelauk*; eta endelegatu ote zioten ez ote zioten endelegatu, behin eta berriro esan zuen—. *Vizcaino!* —nabarmen erakutsiz hatz luzea nigana zuzendua, eta hats erreaz ebakiz—. *De sangre plebeya!* —aldarri batean jaurti.

Ez dakit Salakoek azken hori zuzen endelegatu zutelako, edo berbak ezezagun izanik ere haiek esan zituenaren bozaren errean zerbaiten susmoa hartu zutelako, beste isiltasun bat sortu zen han. Denen begiak eneganako ziren. Hobeto esanda, aldean neukan jakatik galtzetara, galtzetatik jakara, soinean gora eta behera zebilzkidan. Nire odolaren balio ez bide zetorren haienarekin bat.

*Gaztelauri* egindako itaunak urratu zuen isiltasuna, eta itaunak berak gizon handiusteko denen begiradak haren aldera lerrarazi.

—*Don Melchor de Pereda* —harro esan zuen—. *Castellano, de sangre limpia!* —arrapustu zion bigarren itaunari, nazioaz egin ziotenari, alegia.

Halaxe jakin genuen elkarren berri laburra. Hain zuzen ere, nirekin gurdian batera etorritakoak frantsesak ziren; flandestarrak ziren beste lau gizonak eta, azkenik, *almain* esan zuena, Helga, edo Maria, edo zena zelako huraxe zegoen. Eta, diodan moduan, Don Melchor de Pereda. Harexekin luzatu zen itauntzailea.

Aditu nituenetatik endelegatu ahal izan nuenez, Petruccio zen beste haren grazia, eta Italia aldeko lengoaie-



takoren batekoa bere kutsua. Hala da ze, elkar ulertu ahal zuten, bai, bi aitonen semeek, holakoxetzat jo bainuen italiarra. Zer zitekeen bestela belusezko eta halako beste oihal preziatuzko jaka, atorra, oilo-hegaldun galtza hantatuak eta oinetan oihal antzekoak zeuzkan gizona.

Bada, Petrucciok gutunaren harira egin zitzaizkigun itaunen arrazoia zein zen argitu zion *Gaztelauri*, baita ere, bide batez, haren lengoaian zer edo zer endelegatzeko gai ginenoi. Geure buruak dirutan balioesteko izan zen hura dena. Alegia, gutariko bakoitzaren askatasunaren truke inork inoren bahirik ematerik ba ote zuen jakiteko, eta hala izanez gero bahia zenbatekoa izan behar zuen erabakitzeke.

Bere buruagatik baietz, halaxe esan zuen *Gaztelauk*, eta bere ondasunetako batzuk han bide zirela, *San Salvador* ontzian, baina duda egiten zuela negatik inork ezer eman zezakeenik, eta beste arrotzez —*extranjeros*, esan zuen—, Jainkoak anpara zitzala; han ziren beste gaztelauak askatzearren dirua emateko prest zela esanez amaitu zuen.

—*Gracias!* —esan zuten Gaztelako mintzairan jarduten zuten biek, aldi berean.

—Zure ondasunak *San Salvador* galaian baldin badaude —Petrucciok *Gaztelauri* begiratu zion—, ukitu gabe daudeke. Horrenak —niri begiratu zidan, eta hurrengo esan zuena kutxaz ziola begitandu zitzaidan—, berak atxiki ditu. Bi horien ardura ematen dizugu, bada. Besteak ez dira gaztelauak, ezta Gaztelako erregeren koroaren mendeko herrietakoak ere —buruaz Salakoei keinua egin zien; *Lordi*, *Drakeri*, izkiriatazailai.

—Geldi hor! —*Gaztelauk* haserrez etenarazi zion—. Horien herriak, flandestarrok, Errege Filiperen koroarenak dira-eta, gorde ditzala hola luzaz Jainko zerukoak.

Petruccio begira geratu zitzaion, *Gaztelaren* harrokeriak ustebakoan jota.

—Ez dut azken hori ingelesez emango, jauna, bestela soka-bilurrak itoko dizu aldarrietarako gogo. Filipek estatatu horiek nola dituen menpean hartuta esklabo, halaxe nahi izango zukeen Ingalaterra! Gizonok eurek esango dute zer diren. Hortaz, ikusiko da horiekin zer egin. Armadaz zer dakiten erantzun eta gero.

Aginduaren taxuko keinua egin zuen buruaz, armadun zenbait hurreratu baitzaizkion, binakoetan, eta beso banatik hartu guztiak, baita emakumea bera ere. Hark os-tera keinua egin zien, ez ukitzeko, eta halaxe atera zuten besteekin batera Salatik. Ukitu barik.

Dudan izan nintzen, gaztelau biak izan ezik denak ez ote zituzten laster batean akabatuko. Filiperen Koroaren menpeko ontzietan borondate onez izan baldin baziren, seinale euren herriak erregeren menpekotzat zituztena.

Baina zer arraio niri haiek ontzian zer zela eta sartu ziren, zer egiten zuten ez zuten egiten. Ni neu han zertan jarduna nintzen, horra ardura zidana. Besteek pagadun soldaduen egin zezaketen, salbu eta, bistan zenez, emakumeak. Nik Helga zela uste izanik Maria zela zioenak *San Salvador* galeoi galaian zer egiten zuen, hura bai misterioa.

Harenganako amorru itsu batek hartu ninduen, oi! Ahantzuraren oihala urratzen lagundu beharrean nire gomuta apurrak okerreko ametsak baino ez zirela sinistarazi behar zidan. Nolahi ere, bazen han nire gainean zerbait

zekienik. *Gaztelauk* nitaz zer esan zezakeen, harexi adi lotu nintzen.

—Zer dela eta diok gazteagatik —Petrucciok begirada nigana luzaturik esan zuen—, horregatik inork ezer ezin eman duela? Ez baitirudi horren moduan jantzita dagoena lekaio hutsa izan behar duenik; lapurra, ebaslea eta beste zerbait zitalagorik ez bada, behinik behin. Ze, ez dirudi horrek dituen ondasunak marinel soil batenak direnik.

Batek lekaio!, lapur!, ebasle! esan, eta besteak horien susmoa berretsi; barrenak balezta bihurtu zitzaizkidan-eta, azkonik zorrotzena jaurtiko niekeen, italiar sugandila hari zelan, halaxe *Gaztelaui*. Biei.

—Ontzian egiten zuenaz oroitzerik baino ez dut, jaina! —mihiaz koipea ematerik balego, upel bete hark—. Marinetakoa zen. Han ziren besteek esan ahalko dute egia diodanentz.

—Han izan zirenetarik zeuok zarete azkenak —solemnidade itzelaz esan zuen—. Beste gehienak beste ontzietara erreskatatu zituzten eta, zeuek zarete hango azkenak bizirik.

—Ezinezkoa! Zuek —italiarrari begiratu zion—, ingelesok, *San Salvadoren* agertzean, berrogeita hamar gizon baginen-eta han bizirik.

—Egia —pausa egin zuen—. Hilik dira beste denak. Nolanahi ere, beste preso espainiar batzuk badira hemen-dik ez urrun.

Don Melchor de Pereda haren oinek ez zioten eutsi. Behera etorri zen.

Kadira bat ekar ziezaioten agindu zuen orduan *Lordek*, eta egin ere halaxe egin zen. Melchor de Pereda aitonen semeak mintzoa galtzear zeukala ekin zion.

—Zenbat? —jakin nahi izan zuen.

—Laurehun bat. *Nuestra Señora del Rosario* ontziko den-denak. Tartean Don Pedro de Valdes, ontziko denen burua. Ingalaterra salbu da, eta zuen Armada zorioneko hori, urpean ia osorik. Oraindino urgainean direnak —trufa egin zuen—, Eskoziara bidean doaz; heriotzara, hortaz! Ez da honezkero konbatik hemen. Bai, arean, arrainen artean, zuen lagun hesteetako gozobenaren bila. Hamar egun dira gure ontziak guduan sartu zirena, eta gaur, abuztuak bi dituela, zuenak itsasoan galduta dabilta, edo bestela hondoa. Egun handia!

—Abuztuak bi gaur? —*Gaztelauk* mira eginda esan zuen. Haatik, ez zuen miragarri egin bide zitzaionaz ezer esan, ezta beste ezertaz ere. Zutunik ni *Gaztelauren* kadiraren ondoan, gizona zein akiturik zen ohartu ahal izan nintzen. Halaxe egon beharko nukeen nik neuk ere, Petruccio hark zein gerra aipatu zuen, hartantxe egona bide baitzen *San Salvador* ontzia, hots, gurea. Besteak legez, gerra galdua nintzen. Haatik, horrek ez zuen zirkinik ere eragin ni baitan. Ez nekien zein gerraz ziharduten, ezta ere *Nuestra Señora del Rosario* ontziaz ezer eta, bistan zenez, preso ziren beste laurehun bat haiek nor ziren ezin igarri nuen. *Gaztelauk* bai, antza zenez. Lekaio batek, hura bai lekaioa, godelet zoragarri batean ura ekarri zion, eta ezpainetara eman. Niri osteraz ez.

*Gaztelauren* gaitza luzerako izan zen ala berehala suspertu zen, ez nekike esaten. Ez nuen berriro ikusi. Lehenago besteak bezala, armadunen artean hartu ninduten, eta erdi dandarrez eroan kanporantz. Hartan, osteraz, mutikoak berriz esan zuen «*Sir!*, *Seigneur!*», eta hura adi-

turik istant baten buruan aditu ziren Salakoen barreak ere. Barreok behingoan eten ziren, Drakeren keinu batek halaxe aginduta. Mutiko morroskoa belarrira ari zitzaion.